

# Arkitektura industrialia modernoa Gipuzkoan (1928-1939): tipologiak eta iturriak

(Modern industrial architecture in Gipuzkoa (1928-1939): typologies and sources)

Fernández Altuna, José Javier  
Indianoene Bidea, 9, 3-B. 20013 Donostia  
jfernand2@pnte.cfnavarra.es

BIBLID [1137-4403 (2004), 23; 325-333]

Jaso.: 04.11.27  
Onartu.: 04.01.14

---

*Lehen razionalismoa XX. mendeko hogei eta hogeitamargarren hamarkadetan garatu zen. Eta nahiz eta sormen gune garrantzitsuenak Euskal Herritik kanpo egon, gure lurraldeetan estilo berri hura oartzuna izan zuen. Euskal probintzietan arkitektura modernoaren alde apostua egiteko orduan Gipuzkoa nabarmendu zen, eta gainera arkitektura industrialaren bitartez, arkitektura mota honetan edifizio nabarmenenak eraikiz. Komunikazio honetan eraikin hauek altxatzeko orduan erabilitako tipologiak eta iturriak aztertzen saiatuko gara.*

*Giltza-Hitzak: Arkitektura industrial. Arkitektura modernoa. Razionalismoa. Gipuzkoa.*

*El primer racionalismo se desarrolló en las décadas de los años veinte y treinta del siglo XX. Y aunque los centros de creatividad más importantes se situaban fuera del País Vasco, el nuevo estilo tuvo eco en nuestras tierras. En las provincias vascas, Gipuzkoa se distinguió a la hora de apostar por una arquitectura moderna, y además lo hizo por medio de la arquitectura industrial, construyendo edificios destacados en este tipo de arquitectura. En la presente comunicación trataremos de analizar las tipologías y fuentes utilizadas a la hora de construir dichos edificios.*

*Palabras Clave: Arquitectura industrial. Arquitectura moderna. Racionalismo. Gipuzkoa.*

*Le premier rationalisme s'est développé au cours des années vingt et trente du XXème siècle. Et bien que les centres de créativité les plus importants se situaient hors du Pays Basque, le nouveau style s'est répandu dans nos terres. Parmi les provinces basques, Gipuzkoa s'est distinguée au moment de miser sur une architecture moderne et, de plus, elle l'a fait au moyen de l'architecture industrielle, en construisant des édifices qui se distinguaient dans ce type d'architecture. Dans cette communication nous tenterons d'analyser les typologies et les sources utilisées au moment de construire ces édifices.*

*Mots Clés: Architecture industrielle. Architecture moderne. Rationalisme. Gipuzkoa.*

## SARRERA

Aro garaikideko arkitekturaren historia aztertzen dugunean, arkitektura modernoa deritzogun estiloa garrantzitsua bezala jotzen dugu. Estilo honetan –forma sinpleak, dekorazioa ezabatuta, funtzionaltasuna nagusi, razionalismoa– arkitektura disziplinak aurreko estilo eta ohiturak ahutsi zituen eta egungo arkitektura garaikideari ateak ireki zizkion.

Aldaketa ez zen bat batekoa izan, baizik eta XIX. mendearen amaieratik XX. mendeko hirugarren hamarkada bitartean gertatu zen. Denbora honetan herrialde desberdinetako hainbat arkitekto “abentura” honetan parte hartu zuten, eta aldaketa honi izenburua ipintzeko orduan abentura hitza erabiltzen badugu garaiko eta geroko historiografia arkitektonikoak garai honetan modernitatearen alde apostu egin zuten arkitektoak heroi moduan tratatu dituztelako da. S. Giedion, L. Benevolo, R. Banham, R. Hichcock edota K. Frampton<sup>1</sup> bezalako historiaegileak, aldaketa guzti hauek laburtu eta zabaltzeko nahian, askotan zaila eta konplexua izan zen ibilbidea ikuspegia sinplistegietatik erakutsi dute. Hala ere, onartu behar da arkitektura modernoa edo razionalista deitzen dugun estiloa, arkitekto heroi hauei esker zabaltzeko dela eta Gipuzkoaren kasuan –Euskal Herria eta Espainia osoan bezala– estilo berri hau beranduago helduko bada ere –hogeigarren hamarkadaren amaieran–, gehienbat garaiko komunikabidei esker izango da.



Laborde Anaien Lantegia, jantokien eraikinetatik ateratako ikuspegia. Andoain.

---

1. FRAMPTON, K.: *Historia crítica de la arquitectura moderna*. Gustavo Gili, Bartzelona, 1989.

Baina Gipuzkoak arkitektura modernoaren historiaren ildoan badu bereiztasun bat: probintzi honetara arkitektura modernoa tipologia berezi bati esker helduko da, arkitektura industrialia, beste eraikin motak –etxebizitzak, elkarteak, ikastetxeak– asko proiektatu eta gutxi eraikiko baitira, eta ondorioz, arkitektura industrialak bai zenbakiaren aldetik bai kalitatearen ikuspuntutik sekulako garrantzia izango du. Horren adibide garbiena Andoaingo Laborde Anaien lantegia da; Donostiako Nautiko Elkarte (1929) aipatzen bada ere liburu gehienetan Euskal Herriko lehen eraikin modernoa bezala<sup>2</sup>, Laborde lantegiko lehen pabiloia, estilo razionalista berean egina, 1928koa da. Lantegi honetan estilo berean egindako edifizio bitxienetakoa ere aurkituko dugu: langileen jantokia, 1939an altxatuta<sup>3</sup>.

Komunikazio honetan Gipuzkoako arkitektura industrialia tipologia eta iturrien ikuspuntutik aztertzen saiatuko gara. Tipologiarekiko, estiloaren araberak, bi bereiztuko ditugu: alde batetik Alemaniako eta Holandako arkitekturaren eraginez eraikitako arkitektura industrialia, eta bestetik, Frantziako eraginaren ondorioz altxatutako arkitektura. Iturrietan, ohiko bibliografiaz gain, Euskal Herriko Iparraldeko eragina Gipuzkoan aztertuko dugu, Euskal Herriko baserrien itxura garaiko hainbat eraikinetan kopiatzen zituzten bezala, arkitektura modernoa ere urte hauetan Lapurdiko kostan lehenago garatuko baita eta gure inguruko arkitektoetan eragina handia izango du.

## TIPOLOGIEN ALDAKETAREN GARRANTZIA

Beste arlo askotan bezala, arkitektura industrialean ere tipologiaren aldaketan eta bilakaeran estilo beraren garapena aurkituko dugu. Gipuzkoan industria iharduera garrantzitsuenak XIX. mendearen amaieran hasi ziren. Hala ere, lehen eraikin industrialak baserriaren itxura izango dute, bai tradizioaren eraginagatik, baina baita ere lehen iharduera industrialak ohialgintzaren inguruan garatuko baitira, eta iharduera honetan eraikinak bertikalki altxatu behar ziren<sup>4</sup>.

Beste iharduera industrialia mota garatzen hasten direnean –eta bereziki, metalgintzarekin harremanetan egongo direnak– eraikin industrialak horizontalki egin beharko dira eta orduan, eraikin gehienak kanpotik baserri itxura mantenduko badute ere, materiala berriak –burnia, homigoia– eta estilo berri-tzaileak onartzeko aukera handiagoak egongo dira. Gainera, aldaketa hauek XX. mendearen lehen bi harmakadetan emango dira, European eta Estatu Batuetan aldaketa garrantzitsuenak ematen ari diren garaian<sup>5</sup>.

---

2. SANZ ESQUIDE, J.A.: *Real Club Náutico de San Sebastián, 1928-1929*. Colegio Oficial de Arquitectos de Almería, Almería, 1995.

3. TRUTXUELO GARCIA, M.: “Laborde Hermanos: trayectoria histórica de una empresa”, *Leyçaur 5, Andoaingo Ikerketa Historikoen Aldizkaria*. Andoaingo Udaletxeko Artxibo Zerbitzua, Andoain, 1998, 225-297 or.

4. IBAÑEZ, M.; SANTANA, A.; ZABALA, M.: *Arqueología industrial en Gipuzkoa*. Universidad de Deusto-Gobierno Vasco, Bilbo, 1993.

5. SOBRINO, J.: *Arquitectura industrial en España (1830-1990)*. Cátedra, Madrid, 1996.




Jantokien eraikina Laborde Anaien Lantegian. Andoain.

Gipuzkoan arkitektura industrialia modernoaren lehen adibideak hogeigarren hamarkadaren amaieran azalduko dira; lehenengoa, Laborde Anaien lantegia, Andoainen eraikiko da, Gudarien Etorbidean, eta metalgintza iharduerarekin lotuta egongo da. Hala ere, eraikin hau salbuespen bat besterik ez da izango, hurrengo urteetan eta hogeitamargarren hamarkadaren amaiera arte, ez baititugu adibide gehiagorik aurkituko. Arrazoien artean, giro politikoaren egoeraz gain –aurrena Bigarren Errepublikaren (1931-1936) ezezgortasuna eta gero Gerra Zibila (1936-1939)– ekonomikoki ere arazoak handiak izan ziren; urte hauetan, ondorioz, soilik Pasaiako portuan altxatutako eraikinak –ofizinak (1933), almaginak (1935) eta osasun zentroa (1935)– eta Eibarren Aguirre y Aranzabal lantegia Raimundo Alberdi y Abaunz arkitektoak altxatuta, razionalismoaren izpiritua jarraituz nabarmendu ditzazkegu. Bitxia gertatzen bada ere, Gerra Zibila Gipuzkoan amaitzen denean (gerra hasi eta lehen hilabetetan) probintziak loraldi ekonomikoa bizituko du, bando nazionalentzako Gipuzkoako industria ezinbestekoan bihurtuko baita bai gerra irabazteko orduan bai gerra ondorengo lehen urteetan. Hori dela eta, 1939. eta 1942. urteen artean, mugimendu modernoaren estiloaren barne bost eraikin bereziak eta bikainak altxatuko dira: SACEM lantegia Billabonan (1939) eta Union Cerrajera Arrasaten (1939), biak Luis Astiazaran arkitektoak diseinatuak, Olanar manufaktura lantegia Beasainen (1939) Florencio Mocoroak altxatuta, La Palmera Irunen (1939) Jose Antonio Pontek eraikia eta, azkenik, Langileen jantokia eraikina Andoaingo Laborde lantegirako egina (1939)<sup>6</sup>.

---

6. ZALDUA GOENA, M.J.: "La aportación de la arquitectura industrial a la arquitectura moderna en Gipuzkoa: la obra de Luis Tolosa, Luis Astiazarán y Florencio Mocoroa", *Arquitectura e Industria Modernas (1900-1965)*, Actas. Segundo Seminario DOCOMOMO Ibérico, Sevilla del 11 al 13 de noviembre de 1999. DOCOMOMO Ibérico, Bartzelona, 2000.



Laborde Anaien Lantegiaren ikuspegi orokorra. Andoain.

Eraikin multzo hau orokorrean aztertzen badugu –hamar edifizioz osatutako taldea– oharitu gintezke estiloaren aldetik iharduera industrial jaso eta eraikina altxatzeko orduan, bi estilo desberdinu daitezkeela. Alde batetik Alemaniako (Behrens, Gropius) eta Holandako (Dudok) arkitektura eta estiloa jarraitzen dituzten edifizioak bereizi behar ditugu. Eraikin hauetako konposizioan bertikalak horizontalak baino garrantzi handiagoa hartzen dute, eta orokorrean, murru eta fatxadaren antolamendua lehoi arteko konbinaketan bihurtzen da. Astiazaran arkitektoaren lanetan –SACEM Billabonan eta Union Cerrajera Arrasaten, besteen artean– batez ere Alemaniako eragina nabari da, sinpletasunak nagusigoa baitu, eta arkitektura modernoaren printzipio guztiak betetzen badira ere, sarrerako zutabeetan klasizismoaren eragina nabaria da, Grezia eta Erromako tenpluen atariak oroitzuz<sup>7</sup>.

Eibar, Beasain eta Irunen Mocoroa, Alberdi y Abaunz eta Pontek Europako iparraldeko eraginetara jotzen badute ere, herrialdez aldatu eta beraien eraikinetan Holandako eraikinen influentzia handiagoa nabaritzen da. Eraikin hauetan murru eta lehoien arteko jokoak aberatsagoa da eta, batez ere, bertikalitasuna nabarmentzen da eraikinetan; efektu hau edifizioetan dorre bat eraikiz nabarmentzen da. Bolumen joku hau neoplastizismo abanguardia mugimenduaren eraginaren ondorio bat da, eta Gipuzkoako hiru edifizio hauetan oso ongi antzematen da.

---

7. MENDIETA, J.M.; OLAZABAL, M.; SANZ ESQUIDE, J. A.: *Archivo de arquitectura en el País Vasco. Años 30*. COAVN-Bizkaia, Bilbo, 1990.

Bigarren taldeko edifizioak arkitektura modernoaren jarraitzaileak badira ere, garatzen dituzten erreferentzi multzoak desberdinak dira. Andoain eta Pasaiako eraikinetan, aurreko Europako iparraldearekiko joeraren aurrean, oraingoan oinarrien bila hegoalderuntz abiatzen dira. Abiapuntua Frantzia izango da, arkitektura modernoa ulertzeko modu simple eta horizontalagoa batekin; askotan joera honi Mediterraneoko arkitektura ere deitu izan zaio, itsasertze honetako betiko etxe sinpletan inspirazioa bilatzen saiatu baitzen. Estilo honetan arkitekto ospetsuena eta eragin handienetakoa izango duena Le Corbusier da. Hogeitahamargarren hamarkadetako edifizioetan Le Corbusierrek arkitektura simple, funtzionala eta argiz betetakoaren aldeko apustua egin zuen. Konposizio eta bolumen jokurik gabe, erabiltzen ziren abiapuntu eta erreferentzi estetiko bakarrak itsasontzien fornak ziren –forma kurboak, lehiu borobilak, korridoreak, barandak, horizontaltasuna–, eta askotan eraikin mota hauen barneko antolamenduan arkitektura modernoaren irizpideak arkitekto askok ez bazituzten jarraitzen ere, kanpo aldean estetika mota hau nabarmentzen zen eta garaian eragina eta arrakasta handia izan zuen. Hogeitahamargarren hamarkadan estilo honetan modu hau jarraituz lan egin zuten arkitektoen lanei art-deco deitu zitzaien<sup>8</sup>.

Andoain eta Pasaiako eraikinetan Frantzia –Le Corbusier–, art-deco –Robert Mallet Stevens arkitekto frantziarra, besteak beste<sup>9</sup>–, Mediterranea eta itsasontzien eraginak nabariak dira. Gainera, bost edifizio hauen arteko lotura oso bitxia da; bostak ingeneri desberdinen sinadurak dituzten planoen bitartez altxatu baziren ere, bost proiektuetan delineatzailearen izena bera da: Luis Tolosa irundarra. Tolosak planoak ezin zituen sinatu, baina garai hartako testigantzak eta zenbait dokumentuak adierazten dutenez, bost proiektuak Tolosaren irudimena eta eskuetatik atera ziren<sup>10</sup>.

## ITURRI DESBERDINEN ERAGINA

Arkitektura modernoaren abenturan Espainiak bigarren mailako papera jokatu zuen. Gune nagusiak European –Alemania, Holanda, Frantzia eta Italia– eta Estatu Batuetan egon ziren, eta Espainian GATEPAC bezalako elkarteak edota hainbat arkitekto desberdin –adibidez, Fernando Garcia Mercadal madrildarra<sup>11</sup>– estiloa berria ekarri eta aplikatzeko ahalmenak egin bazituzten ere, arkitektura modernoak Espainiara berandu heltzeaz gain, eragin txikia izan zuen. Espainiak garai honetan berezkoa zuen atzerapenarekin batera –bai politika arloan bai ekonomikoki– gerra krudel eta gogor bat pairatu izana

---

8. PEREZ ROJAS, J.: *Art Déco en España*. Cátedra, Madril, 1990.

9. AA: *Robert Mallet Stevens: Architecte*. Editions Archives d'Architecture Moderne, Bruxelles, 1980.

10. FERNANDEZ ALTUNA, J.J.; TRUTXUELO GARCIA, M.: "Arkitektura industrialia Andoainen (1928-1942)", *Leyçaur 7, Andoaingo Ikerketa Historikoen Aldizkaria*. Andoaingo Udaletxeko Artxi-  
bo Zerbitzua, Andoain, 2002, 339-376 or.

11. DIEGUEZ PATO, S.: *La generación del 25. Primera arquitectura moderna en Madrid*. Cátedra, Madril, 1997.



–Gerra Zibila–, hogeitamargarren hamarkadako bilakaera eta garapenarako asmo eta amets guztiak gerrak zapuztu zizkion<sup>12</sup>.

Hala ere, Espainiako zenbait lurraldeetan arkitektura modernoak bere auke-  
ra ttipia izan zuen, eta horien artean Gipuzkoako probintzia nabarmendu behar  
dugu. Proiektu gehienak gauzatu ez baziren ere Bizkaian, eta Gipuzkoan berezi-  
ki, arkitekto belaunaldi gazte batek sekulako apostua egin zuen estetika eta  
etika berri baten alde. Arkitektura industrialia mugimendu honen aurpegi bat  
besterik ez da, baina aipatzen ari garen bezala Gipuzkoaren kasuan garrantzi-  
tsuenetakoa.

Baina estilo berri hau hemen sortu ez zenez, kanpotik etorri eta hedape-  
na hainbat bideen bitartez gauzatu zen<sup>13</sup>. Ohikoenak beste ikerlariak aipatu  
izan dituzte. Inchausti argitaletxeak Madriletik hogeigarren hamarkadaren  
amaieran arkitektura modernoari buruzko hainbat liburu argitaratu zituen –R.  
Neutra, S. Giedion edota G. A. Platz bezalako arkitektoak idatziak– razionalis-  
moa eta funtzionalismoa defendatzen zutenek. Liburuetatuz hitz egiten dugu-  
nez, Le Corbusier berak *Vers une architecture* liburuaren bitartez bere ideak  
plazaratu zituen eta Madrilgo arkitektura eskolako programazioak estilo berri-  
tzailea jasotzen ez bazuen ere, ikasle gazteen artean 1925eko bigarren argi-  
tarapena eragina handia izan zuen.



Jantokien eraikina Laborde Anaien Lantegian. Andoain.

12. URRUTIA NUÑEZ, A.: *Arquitectura española. Siglo XX*. Cátedra, Madril, 1997.

13. MOYA, A.; SAENZ DE GORBEA, X.; SANZ ESQUIDE, J.A.: *Arte y artistas vascos de los años 30. Entre lo individual y lo colectivo*. Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia, 1986.

Beste informazio gune garrantzitsua *Arquitectura* aldizkaria izan zen. Madrileko arkitekto Elkargo Ofizialak (COAM) argitaratuta, 1922tik 1930 bitartera aldizkariak arkitektura modernoa defendatuz eta bultzatuz berrogei artikulok argitaratu zituen<sup>14</sup>. Aldizkariak tratatu zituen gaien artean nabarmendu behar dira, Alemania eta Holandako arkitektura gorai patzen zituzten artikulok, Le Corbusier eta Fernando García Mercadalek idatzitako iruzkinak mugimendu modernoaren alde eta beste zenbait artikulok.

Azken hauen artean bat bereziki nabarmendu behar da, 1926an Robert Mallet Stevens arkitekto frantziarrak idatzitakoa da “Las razones de la arquitectura” izenburupean<sup>15</sup>; bertan Mallet Stevensen arkitektura modernoa defendatzen du, baina art-deco estiloaren ikuspuntutik. Eta Le Corbusier, Gropius, Behrens edota Dudoken eraikinak Gipuzkoatik urruti bazeudeten ere, Mallet Stevensonek bere obrarik garrantzitsuenetakoa Gipuzkoatik hurbil altxatu zuen, Donibane Loizunen, Kasinoaren eraikinaren proiektua berea baita; bertan razionalismoaren irizpideak jarraitzeaz gain, Mallet Stevens arkitekto frantziarrak itsasontzien estetikaren elementuak eraikinari erantsi eta aipatu ditugun hainbat sinbolo eta elementuak gehitu zizkion<sup>16</sup>. Hauetako gehienak Gipuzkoako arkitektura industrialean aurkitu ditzazkegu, baina bereziki Laborde Anaien lantegian eta Pasaiaiko portuko eraikinetan.

## ABENTURAREN AMAIERA

Askotan uste izan da arkitektura modernoaren abentura Gipuzkoako probintzian Gerra Zibilarekin amaitu zela, eta ez da horrela. Gerra Gipuzkoan, lehen aipatu dugun bezala, 1936an bertan amaitu zen eta ondorioz nabarmendu ditugun eraikin gehienak gerra urteetan egin ziren bando frankistaren industria iharduera beharrak asetzeko asmatan. Eta beraz, abentura honen amaiera 1939an izan beharrean 1942ra arte luzatu beharko litzateke. Beste hiru urte horietan razionalismoaren irizpideak jarraituz lantegi gehiago eraiki ziren—Andoainen, adibidez, SAPA lantegia Luis Astiazarainek diseinatuta eta Ziako lantegia Luis Tolosa delineaatzaileak berriro ere bertan parte hartuz—eta estilo honen amaiera edota etena—hurrengo hamarkadan berreskuratuko baita— izango da.

Berreskurapenaren ondorengo hamarkadetan arkitektura industrialak Gipuzkoan sekulako garapena izan zuen, baina eraikinen kalitatearen aldetik—Luis Peña Ganchequioren salbuespena batzuk kenduz— ez ziren hogeitamar garren hamarkadako maila izatera heldu. Eta tamalez hamarkada honetako eraikin gehienak desagertu egin dira, eta komunikazio honetan aipatu ditu-

---

14. Madrileko Arkitekto Elkargo Ofizialak (COAM) X. mende hasieratik garanti handia izango duen aldizkaria argitaratuko du. Bere izena *Arquitectura* zen eta 1922ko martxotik 1930ko urtarrila bitartera (35-129. zenbakiak) berrogei artikulok argitaratuko ditu razionalismoa bultzatuz.

15. MALLET STEVENS, R.: “Las razones de la arquitectura”, *Arquitectura*. 1926, 92. zenbakia, Abendua, 470-484. orrialdeak.

16. SEGOT, J. P.: *Arquitectura Art Déco sur la Côte basque*. Atlántica, Miarritze, 2000.



gun eraikinetatik egun zutik mantentzen diren edifizioak gure historiaren ondare artistikoa islatzen gutxi dira. Beste garai eta estiloetako eliza eta jau-regiekiko dugun sentsibilitatea arkitektura industrialara zabaldu behar dugu eta defendatu eraikin razionalistak diren neurrian, erabilpen berrietarako prest baitaude; zorionez, honen bi adibide baditugu: Laborde anaien lantegia egun Martin Ugalde Kultur Parkea da eta Aguirre y Aranzabal lantegia Eibarreko Portalea kultur etxean bihurtu dute. Ez dezagun ahaztu XX. mendeko gure ekonomiaren motoreak izateaz gain, arkitektura industrialia Gipuzkoan eta Bizkaian gure herriaren garapenaren testuinguru, eta askotan, protagonista izan dela, eta ondorioz, gure ondare historikoa eta artistikoaren zatiak dira, gure oroitzapen sentimentalaren parte diren neurrian.